

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezereokiko harremana pertsonalizatua izango da, eta bezere bakoitza bere kezka eta arazoak azaltzeko, telefono/gmail bat ahalbidetuko dugu. Honi esker, bezereok konfiantza sentituko dute eta babestuak sentituko dira.

Gure webgune ofizialean ere, kezka arruntak argituta emango ditugu, bezereok era azkar batean arazo arruntenak konpontzeko aukera izateko.

Gure negozio-ereduaren alde oso garrantzitsu bat bezereok pozik mantentzea eta haien nahiei erantzutea da, beraz kexa hauek aztertuko dituzten lantalde bat izango dugu, gero ingeniariekin hitz egingo dutenak eta arazoak konpontzen saiatuko direnak.

Bezereok lortzeko marketing plana egingo dugu (lehen azaldutakoa) eta publizitatearen bidez jendeari hurbilduko gara. Baina, bezereok lortzea ez da gauzarik garrantzitsuena, bezereok pozik mantentzea ere oso garrantzitsua da (gero hauek gure produktua gomendatu dezaten). Bezere hauek mantentzeko, segurtasuna eskainiko diegu, zerbitzu egoki eta eraginkor baten bidez, eta propaganda egingo diegu gmail bidez, gure azken produktuen eta aktualizazioen berri izateko.

Horretaz gain, **gure enpresaren bazkide egiteko aukera emango** diegu (8.99 hilabetean), gure produktuetan deskontuak izateko (beste ate bat jartzeko orduan edo berriztatze orduan), horrela dirua lortzen jarraituko dugu. Horretaz gain, gure ateak oso ziurak izango dira eta bezereoi garantia bat salduko diegu (prezio baxuarekin) edozein apurketa babestuko duena.